

DIRU-ITURRIAK

Proiektu hau ikasturtean zehar (irailetik ekainera) martxan egotea eta ikasturte honetan bakarrik ez, hurrengo ikasturtean zehar martxan egotea planifikatu da. Ikasturte honi dagokionez, urtarrilean has gaitezkeela pentsatu dugu. Gainera, proiektu hau ikasturtean zehar egiteko asmoa dagoenez, lehen hilabeteetan haziak hazten eta gero birlandatzen arituko gara, baratzea belar txarretatik garbitzen eta barazkiak hazten egongo dira. Prozesu horrek bi-hiru hilabete inguru irauten du; beraz, hilabete horietan ez dugu irabazirik izango. Denbora horren ondoren, frutak eta barazkiak bildu eta saskiak prestatu eta saldu ahal izango ditugu, orduan bai diru diru sarrerak lortuz.

Gure ekimena martxan jartzeko kostua 170€tan estimatu dugu, kostu hau finantziatzeko gure egitasmoaren helburuekin bat datozen ikastetxeko erakundeek emandako diru sarrerekin kontatzen dugu. Proiektu hau aurrera eramateko Agenda 30 eta Hizkuntza Normalkuntza taldeen laguntza jasoko dugu; klimaren aldeko jarduera bat eta euskaraz hitz egingo baita bertan.

Gainera, gure baratzeak ekoizpen- eta salmenta-maila konstante bat mantendu behar du (ikasturtean zehar) kostuak estaltzeko eta martxan jarraitu ahal izateko. Gure helburua ez da diru kopuru handiak lortzea, baizik eta jardueran dituen kostuak estaltzeko haina sarrera lortu eta bestelako helburu batzuetan zentratzea alegia; jendearen artean euskara sustatzea eta janari osasungarriarekiko harremanak hobetzea.

Behin gure ortua martxan dagoenean diru sarrerak saskien salmentatik jasoko ditugu.

- Saskien salmenta: Interneten ikerketa bat egin ondoren adostu dugu tamaina desberdinetako saskiak salduko ditugula. (Txikia: 5€, Ertaina: 10€ eta Handia: 15€) Baratzeari nolabaiteko autonomia bermatzeko, hilean 10 saski saltzea estimatu dugu.



Bestalde, Jose Miguel Barandiaran institutuan baratze hori sortzea pentsatu dugunez, gure erosle nagusiak zentroko langileak (irakasleak, atezainak, garbitzaileak...), ikastetxeko ikasleak eta haien gurasoak izango lirateke. Produktu guztiak erosle horiei saltzea lortuko ez bagenu, gure zentroa posizio abantailatsuan egongo litzateke, Leioako EHUKo hainbat jatetxeren eta beste batzuen artean baitago.